



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Lagun nazazu, Jauna”

2023ko abuztuaren 20a
Urteko 20. igandea (A)

Mateo 15, 21-28.

Handik irtenik, Tiro eta Sidon aldera aldentu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: Erruki zakizkit, Jauna, Daviden Semea! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba.

Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten: Kasu egiozu, deiadarka baitatorkigu atzetik.

Jesusek, ordea: Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak.

Baina emakumea, hurbildurik, ahozpe jarri zitzaion, esanez: Lagun nazazu, Jauna.

Jesusek, orduan: Ez dago ongi semealabei ogia kendu eta txakurrei botatzea.

Emakumeak erantzun zion: Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogiapurrak.

Orduan, Jesusek esan zion: Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna!

Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Orduan, Jesusek esan zion: Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna!

EMAKUMEAREN DEIADARRA

José Antonio Pagola

Lehen mendeko laurogeiko hamarkadan, Mateok bere ebanjelioa idatzi zuenean, Elizak arazo larri bat zuen esku artean: Zer egin behar dute Jesusen jarraitzaileek? Judu-herriaren esparruan hesiturik bizi ala paganoetara ere ireki?

Israel herriaren muga barruan bakarrik aritu zen Jesus. Tenpluko agintariek laster hil zutelarik, ezin egin izan zuen beste ezer. Halere, haren bizitza miatuz, bi gauza oso argigarri gogoratu zituzten ikasleek. Lehenik eta behin, bere jarraitzaileen artean baino fede handiagoa sumatu zuen Jesusek paganoen baitan. Bigarren, Jesusek ez zuen mugatu bere errukia juduetara bakarrik. Guztiena da errukiaren Jainkoa.

Hunkigarria da pasadizoa. Emakume bat bidera datorkio Jesusi. Ez da herri hautatukoa. Paganoa da. Kanaandarra da, Israelen aurka hainbeste borroka egin zuen herri madarikatu hartakoa. Bakarrik ageri da emakumea, izenik gabe. Ez du senarrik, ez neba-ahizparik defenditzeko. Agian, ama ezkongabea da, edo alarguna, edo bereek bertan behera utzia.

Mateok, soil-soilik, haren fedea defenditu du. Mateoren ebanjelioan mintzo den lehen emakumea da. Honen zoritxarraren sakona adierazten duen deiadarrak laburbiltzen du emakumearen bizitza. Ikasleen ondoren dator «deiadarka». Ez du mutuarazi ez Jesusen isiltasunak, eta ikasleen eroanezinak. Bere alabaren zoritxarra, «deabru gaizto-gaizto batek hartuarena», bere oinaze bihurtu du: «Jauna, erruki zaitez nitaz».

Azkenean, harrapatu du emakumeak Jesusen taldea, geldiarazi du Jesus, ahuspeztu eta belauniko, diotso: «Lagundu, Jauna». Ez ditu onartu nahi Israel herriari erabat emanik ari den Jesusen argibideak. Ez du onartu zokoratze etniko, politiko eta erlijioso; ezta hainbat eta hainbat emakume, sexu-bereizketagatik, jasaten ari den bakardadea eta zokoratzea ere.

Orduan agertu da Jesus zinez bere apaltasun eta handitasun betean: «Andrea, bai handia zure fedea; gerta dadila opa duzuna». Arrazoi du emakumeak. Gainerako argibideak ez dira arrazoizko. Sufrimena arintzea da lehenengo gauza. Haren eskaria bat dator Jainkoaren nahiarekin.

Zer ari gara egiten gaur egungo kristauok bakarrik, zokoraturik, tratu txarrak jasanez bizi den eta Elizak ahazturik duen hainbat eta hainbat emakumeren deiadarraren aurrean? Ez ote ditugu alde batera uzten beste zeregin batzuk ditugula eta? Jesusek ez du egin horrelakorik.